



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



Alkarbidek –Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta, 16.000 familiarengana heldu nahi da kanpaina honen bidez.

“EMAN GILTZA | ¡HÁBLALE, ESCÚCHALE!” EUSKARA FAMILIA BIDEZ TRANSMITITZEKO KANPAINA

Bizkaiko ia 16.000 familiak jasoko duten “*Eman giltza-¡Háblale, escúchale!*” leloa daraman kanpainaren helburua, euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzeak duen garrantzia nabarmentzea da. Alkarbide bilguneak koordinatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestuta, egitasmo hau martxan jarriko da 37 udalerrian eta 3 mankomunitatetan. Horretarako, ume jaioberriak eta 1-6 urte bitarteko umeak dituzten gurasoek umearen ingurune hurbilean euskara sustatzeko aholkuak batzen dituen diptikoa jasoko dute etxeetan eta euren kezka eta beldurrak uxatzeko prestatu den web gunearen berri ere izango dute; horrez gain, abestiak, euskarazko oinarritzko hitzak eta esamoldeak ikasteko *KU-KU* liburuxka CD eta guzti ere banatuko zaie.

Leloa

Eman giltza-¡Háblale, escúchale!

Hartzaileak

Ume jaioberriak eta 1-6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoak izango dira “*Eman giltza-¡Háblale, escúchale!*” leloa daraman kanpaina honen hartzaileak.

Kanpaina honetan parte hartu duten 37 udalerrietako eta 3 mankomunitateetako ia 16.000 familia izango dira, beraz, kanpaina honen hartzaileak. Hartzaile horiek hizkuntza geroratzeak duen garrantziaz sentiberatzeko hainbat euskarri jasoko dituzte.

Helburua

Alkarbidek, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilguneak, koordinatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako egitasmo honen helburu nagusia da euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzeak daukan garrantzia nabarmentzea.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



Kanpainaren edukiak

Kanpaina euskarri hauek osatzen dute:

— **Diptikoa:** euskarri honetan, batetik, alkateak edo beste udal ordezkariaren batek sinatutako testua agertzen da hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez) guraso guztiengana hurbildu asmoz. Gutun edo testu horren helburua da gurasoak animatzea euskararen transmisioa bultzatzera eta, gainera, kanpainarako sortu den web gunearen berri ere ematen da bertan.

Gutunaz gain, diptikoan hainbat gurasoren irudiak ere agertzen dira eta transmisioaren inguruko mezuak ematen dizkiete gainontzeko gurasoei. Atal horretan kanpainaren protagonista diren gurasoak umeei jolasteko aukera dute euren argazkiak itsatsita.

— **KU-KU liburuxka eta CDa:** Udalerri batzuek material horri laguntzeko KU-KU liburuxka berrargitaratu dute, liburuxka hau orain dela bost urte argitaratu zen lehen aldiz, baina izan duen harrera ikusita, aurten berriro argitaratzea erabaki da. Liburuxka honetan, gurasoek euren seme-alabekin hitz egiteko oinarritzko euskarazko hitzak eta esamoldeak batzen dira, baita umeentzako abestiak ere. Liburuxkarekin batera, CDa banatuko da. CD horretan liburuxkan agertzen diren abestiak batzen dira, gurasoek letra aurrean dutela umeei abesteko.

— **Web gunea:** Aurtengo kanpainaren zatirik garrantzitsuenak da. Web guneak gurasoentzat transmisioa bermatzeko giltza izango diren aholkuak, tresnak eta baliabideak batzen ditu. Gainera hainbat gurasoren testigantzak ere sartu dira beste guraso batzuek izan ditzaketen kezka, beldur edota bestelako zalantzak argitze eta uxatze aldera.

Web gunea hiru hizkuntzatan egin da gurasoen tipologia aintzat hartuta:

Euskaraz: guraso euskaldunentzat (bikoteko partaide biak euskaldunak direnentzat edota bikote mistoetako partaide euskaldunarentzat).

Gaztelaniaz: guraso erdaldunentzat (bikote erdaldunentzat eta bikote mistoetako guraso erdaldunarentzat).

Frantsesez: guraso etorkinei zuzenduta dago.

Hizkuntza batean zein bestean web guneak atal hauek ditu:

- o **Aurkezpena:** bideo baten bidez, guraso batek gainontzekoei web gunea aurkezten die, berak izandako kezka eta zalantzak argitzeko balio duela esaten die.
- o **Giltzak:** Atal honetan gurasoek, tipologiaren arabera, izan ditzaketen kezka, zalantza, beldur eta bestelako kontuak argitzen saiatu dira, horretarako aholkuak eta baliabideak ere eskaintzen dira.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



- o **Testigantzak:** Bideoak grabatu dira eta bertan gurasoek euren bizipenen berri ematen dute. Atal honen asmoa da gainontzeko gurasoek ikustea beraiek ez direla bakarrik ari transmisioa sustatzen, beste guraso batzuek ere ekin diotela gai horri eta hasieran beldurra edo kezka izan arren ondo joan zaiela.
- o **Tresnak:** Atal honetan, besteak beste, honakoak jasotzen dira: gurasoen zalantzak argitzen lagungarri izan daitezkeen argitalpenak; umeei euskaraz abestu eta jolasteko baliabideak; euskara ikasteko informazioa; gurasoentzat interesgarriak izan daitezkeen web guneak...
- o **Aholkua eskatu:** Aurreko atal guztiak aztertu ondoren, oraindik gurasoek zalantzarik edota aholkurik behar badute atal honen bidez nahi dutena galde dezakete. Aditu bat prest izango dute euren zalantza guztiak argitzeko eta edozein aholku eskaintzeko.
- o **Sariak:** Atal honetan agertzen den inkesta betez gero, gurasoek familia guztiarentzako sariak irabazteko aukera izango dute.
- o **Antolatzaileak:** Kanpaina parte hartu duten udalen eta mankomunitateen zerrenda agertzen da.

Hizkuntza batean zein bestean atal berdinak agertu arren, edukia aldatu egiten da tipologiaren arabera gurasoen beharrianak ezberdinak direlako. Beharrian, kezka, zalantza eta beldur horiek zeintzuk diren zehatz-mehatz jakiteko kanpaina honen sustatzaileak harreman zuzena izan dute gurasoekin. Eztabaida taldeak eratu dituzte eta horien bidez aurten gurasoek parte-hartze zuzena izan dute kanpaina. Eredu soziolinguistiko eta gurasoen tipologia kontuan hartuta sortu diren talde horietan gurasoek euren kezka eta zalantzak mahaigaineratu dituzte eta horren arabera sortu dira web guneko atalak, batez ere *giltzak* atala.

Parte-hartzaileak

“Eman giltza -¡Háblale escúchale!” kanpaina guztira 58 herri-erakundek parte hartu dute; 37 udalerriak eta 3 mankomunitateak honako hauek dira:

Abadiño, Abanto-Zierbena, Amorebieta-Etxano, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrieta, Arrigorriaga, Balmaseda, Basauri, Berriz, Bilbo, Durango, Ea, Elorrio, Erandio, Etxebarri, Etxebarria, Fruiz, Galdakao, Gamiz-Fika, Gernika-Lumo, Gordexola, Laukiz, Leioa, Lemoa, Markina-Xemein, Maruri-Jatabe, Mundaka, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Muskiz, Orozko, Ortuella, Ugao-Miraballes, Urduña, Zaldibar, Zeberio eta Zierbena. Mankomunitateak hauek dira: Enkarterri, Txorierri eta Uribe Kosta.